

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

4483

EBAZPENA, 2012ko irailaren 17koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzen berri ematen duena.

2012ko ekainaren 6an argitaratu zen EHAAn 2011ko maiatzaren 16ko Agindua, Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu honen 12.1 artikulua dioenez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak hartutako Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizaturik egingo ez zaienik.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kulturako sailburuaren 2012ko maiatzaren 16ko Aginduaren babesean emandako dirulaguntza guztiak eta baita horien guztien onuradunak argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 17a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ANTZOKIETAN EGOITZA-PROIEKTUETARAKO
LAGUNTZAK

2012. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako dirulaguntza eman zaien zerrenda.

Eskatzailea	Dirulaguntza jaso dezakeen ekintza	Diru-laguntza
Astarloa kulturgintza	Ganso & Cía konpainiaren egoitza programa	22.600
Zigoitiko udala	Panta Rhei konpainiaren egoitza programa	25.000
Zornotzako kultura eta euskara zerbitzua	Markeliñe konpainiaren egoitza programa	25.000